

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa batean oso garrantzitsua da ondo identifikatzea egin beharko diren jarduera garrantzitsuenak negozio-ereduak ondo funtziona dezan. Jarduerak ahalbidetuko du gure balio-proposamenaren eskaintza garatzea, bezero potentzialengana iristea, haiekin eraginkortasunez harremanetan jartzea eta diru sarrerak lortzea.

Hiru zatitan banatu ditzakegu funtsezko jarduera motak: Ekoizpena (produktuak diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea), arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak (plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea).

Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena izango da, kontuan hartuz manufaktura enpresa bat dela, guru produktua diseinatzeaz, ekoizteaz eta entregatzeaz arduratuko gara. Merkatuan horrelako produktua lehendik ez zegoenez, hau da, lehendabiziko enpresa izan garenez produktu hau fabrikatzen, merkatuko enpresa bakarra izango gara zentzu honetan. Eta ideia berri bat kaleratzeak, asko laguntzen du enpresaren hazkuntzarako.

Eta ez hori bakarrik, kotxeetan konpresore hauek instalatzeaz ere arduratuko gara, izan ere, instalazio hau ezin du edonork burutu, profesional baten beharra eskatzen du eta horretan egingo dute lan gure langile batzuek.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere, Plataformako edo sareko jarduerak (plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea). Iruditzen zaigu modu errazena dela internet erabiliz gure produktua saltzea. Azken batean, gaur egun teknologia berrietan murgilduta dagoen gizarte batean bizi gara, hori dela eta iruditzen zaigu webgunearen bidez dela modurik errazena gure produktua saltzeko.

Horretarako, webgune txukun eta polit bat eratu behar dugu, dena argi egon dadin, eta bezeroen atentzioa eskura dezagun. Ez du ezertarako balio on line denda bat eratzea eta dena desordenatuta eta ulertzeko zaila izatea, eta horretarako teknologietan trebeak diren pertsonak egongo dira lanean.

